**Arartekoaren 2014R-1158-14 ebazpena, 2014ko irailaren 10ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta baten eta etxebizitzarako prestazio osagarri baten ukapena berriro kontuan har dezan.**

## Aurrekariak

2014ko apirilaren 4an, kexagileak (.....) diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea onar ziezaioten eskatu zuen eta Lanbideko zuzendari nagusiaren urte bereko apirilaren 18ko ebazpenaren bidez eskubide hori ukatu zitzaion honako arrazoi hauek oinarri hartuta: *"benetan bizi izateari/erroldatuta egoteari lotutako baldintza ez betetzea"* eta *"haren etxebizitzan eskaera egin zen unean diru-sarrerak bermatzeko errenta jada aitortuta zuten bizikidetzako bi unitate egotea".*

Kexagileak legez ezarritako denboran eta moduan aipatu egintzaren aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu zuen eta, labur esanda, alegatu zuen erroldari lotutako baldintza bete betetzen zuela eta estatutik jasotzailea ez zenean atera zela eta, hala, haren erroldan ez zela aldaketarik egon eta haren etxebizitzan ez zeudela diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuten bi pertsona. Izan ere, jasotzaileetako bat ez da etxebizitza horretan bizi aipatu etxebizitzaren inguruan erroldan egindako izen-ematearen baja aurkeztu baitu.

Aldi berean, erakunde honen aurrean kexa bat aurkeztu zuen.

Gai horren inguruan Lanbideren informazioa eskatuta, organismo honen ustez, erakunde honi bidalitako erantzunean adierazi da interesdunak ez duela erroldari lotutako baldintza orokorra betetzen, ezta 18/2008 Legean jasotako salbuespenak ere.

## Gogoetak

1. Ukatzeko arrazoietako lehenengoari dagokionez, eta aurkeztutako agiriak ikusirik, interesduna **EAEn erroldatuta dago, inolako etenik gabe, 2007ko abenduaren 12tik** eta behin bakarrik atera da estatutik 2012an hiru hilabete baino pixka bat gehiagorako. Irten zenean ez zuen diru-sarrerak bermatzeko errentarik jasotzen eta, ondorioz, joan-etorri horrek ezin zuen ondoriorik izan haren errolda-egoeran. Pasaportearen kopiaren arabera, 2012/06/25ean irten zen eta 2012/10/09an itzuli zen.

   Erakunde honek Lanbideri makina bat aldiz esan dion moduan, uste dugu ohiko bizilekutik hiru hilabete baino pixka bat gehiagorako irteteak, pertsona batek diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen ez duenean, ez duela zertan benetako bizilekua galtzea eragin.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.net www.ararteko.net

Dakizunez, erroldan izen-ematea aipatu bizilekuko *iuris tantum* presuntzioa da. Presuntzio hori indargabetu daiteke egoitzaz aldatu dela adierazten duten seinale nahikoak baldin badaude baina ez, ordea, bakarrik denbora jakin batean bertan egon ez izana bezalako elementu-xede batengatik.

Ildo horretan, kexagilea haren herrialdean egon zen bitartean erroldan izena emanda jarraitu zuen. Hau da, ematen du argi geratu zela erroldan ageri den helbidean bizitzen jarraitzeko asmoa zuela eta ez zela bere jatorrizko herrialdera bizitzera joan.

Gure iritziz, garrantzitsua da babes publikoko etxebizitzen araubide juridikoari buruzko 39/2008 Dekretuaren edukia aipatzea, erreferentziatzat har baitezakegu. Bertan, 18.4 artikuluak hauxe dio: *"benetako bizilekua erroldan jasota dagoen helbidekoa da eta halakotzat joko da, 2.2 artikuluaren arabera, etxebizitzako okupatzaileen premiei zuzenean eta berehala erantzungo diena, legezko bizileku bat izango dena, eskubideak baliatuko diren eta betebeharrak konplituko dituen leku bat izateagatik".*

Horrez gain, AGeko 2009ko azaroaren 11ko epaiaren arabera, *"zergen arloan eta 1978ko legegilearentzako bizileku presuntzioa egon badago, bertan ez egoteko arrazoiek hiru urte baino gehiago iraungo ez dutela ondoriozta daitekeenean (hala, egoteko asmo-elementu bat badagoela uler daiteke).*

Beraz, gure iritziz, esku artean dugun kasuan ez du benetako bizilekuaren baldintza ezein momentutan galdu. Arrazoi horrengatik benetako bizilekua galdu dela xedatzea kontzeptuaren interpretazio murriztaileegitzat jo daiteke. Eragindakoarentzat interpretazio horrek dituen ondorio oso larriak kontuan hartuta gainera.

Kasu honetan, gure ustez funtsezkoa den elementu bat hartu behar dugu aintzat, alegia: irteerak kexagileak prestazioaren eskaera oraindik egin ez zuenean izan zirela.

Oro har irizpide hori aplikatuz gero, Euskaditik ez ateratzeko eskakizunak pertsona guztiak behartuko lituzke joan-etorri horiek ez egitera, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak ez izan arren; herritarren egoera ekonomikoa okertuz gero eta prestazioa eskatu behar izanez gero, baldintza bete dezaten.

Ondorioz, gure iritziz, 18/2008 Legearen 19. artikuluko eta 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluko betebeharren konplitzea eskubidearen onuradun direnei eska dakieke baina ez, ordea, prestazioen eskaera egin aurretik aldi labur baterako atera diren eta bizileku bera izaten jarraitzen duten pertsonei. Hori da hain zuzen kexagilearen kasua.

2. Ukapenaren arrazoietako bigarrenari dagokionez –hau da, *eskaera egin zenean bizilekuan dagoeneko diru-sarrerak bermatzeko errenta onartuta zuten*

*bizikidetzako bi unitate egotea*-, adierazi behar dugu prestazio horietako bat etenda zegoela 2013/11/01etik, Lanbidek erakunde honi bidalitako txostenean egiaztatu den moduan. Nolanahi ere, eta aurkeztutako errolda-ziurtagirian egiaztatuta geratu denaren arabera, bizikidetza unitate horrek etxebizitza horretan baja bideratu zuen diru-sarrerak bermatzeko eskaera egin aurretik eta, beraz, ulertu behar da interesdunak 147/2010 Dekretuaren 10.2 artikuluan jasotako legezko xedapena betetzen duela.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

Gomendioa

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzen dituen ebazpena ondoriorik gabe utz dadin eta horiek jasotzeko eskubidea onar dadin.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.net www.ararteko.net